



LARRIALDIETAKO ATE IREKIERA AUTOMATIKOA

1.Kontzeptu orokorra

LARRIALDIETAKO ATE IREKIERA AUTOMATIKOA atea irekitzeko sistema automatizatu bat garatu, instalatu eta mantentzean datza, eta automatikoki aktibatzen da larrialdietan. Bere funtzioa pertsonak ahalik eta denbora laburrenean ebakuatzea da.

Sistema larrialdiak detektatzeko gailuekin integratzen da (botoi manualarekin), eta kodigoa berehala sortzen du emergentziakoek edo familia kideren batek ireki ahal izateko aplikazioaren bidez ikusi behar dute kodigoa.

2. Funtzionamendua:

Larrialdi-botoia sakatzean edo detektagailuak zerbait detektatzean sistema automatikoki 112ra (larrialdi-zerbitzuak) seinalea bidaltzen du. Atea kodigo batekin berehala irekitzen da, pertsonak azkar eta seguru ateratzeko aukera emateko.

Beraz, prozesua hurrengokoa da. Lehenik, edozein larrialdi-egoeran (sua, istripua, arriskua) botoia sakatu edo detektagailuak piztu behar dira. Bigarrenik, larrialdi-zerbitzuei eta familiakoei jakinarazpena helduko zaie. Seinalea automatikoki bidaltzen da 112ra, gertakariaren kokapena adieraziz. Hirugarrenik, APP-a kodigoa sortu ondoren atea ondoan dagoen kutxatxoan sartzerakoan atea automatikoki irekiko da. Horrela, pertsonen irteera asko erraztuko litzateke. Gainera, segurtasun-sistemari dagokionez atea automatikoki irekiko lirateke larrialdi-uneetan.

3. Funtsezko ezaugarri teknikoak

Funtsezko ezaugarri teknikoei dagokionez, lehen esan bezala aktibazio automatikoa da ezaugarri nagusietakoa. Larrialdi-seinalearen ondoren berehala erantzutea, segundo bat baino gutxiagotan. Gainera, autonomia energetikoa handia dute, izan ere, korrante elektrikorik gabeko 72 orduko funtzionamendu bermatua du. Horrez gain, bateragarritasun unibertsalekoa da, hau da, edozein ate motatara egokitu daiteke(irabiagailua, irristailua, metalikoa, suebakia...).

Materiala eta diseinuari dagokionez, beroarekiko eta hezetasunarekiko erresistenteak diren materialaz eginda dago sistema honek eta muturreko egoeretako guztiz egokiak dira. Bestalde, diseinua modularra da eta erraz instala daiteke, atearen egitura osoa ordeztu beharrik gabe. Azkenik, APP-aren bidez gertaeren erregistro digitala dago eta sistemak aktibazio bakoitza kontrolatzen eta mantentzen du. Halaber, urrutiko kontrola eta diagnostikoa egiteko aukera dago denbora errealean.



Segurtasunari erreparatuz, pertsona bat botoia sakatuz gero APP-aren bidez larrialdi zerbitzuetara deitzen die eta automatikoki kodigo bat bidaltzen die atea ireki ahal izateko. Horrez gain, bost minuturo kodigo hori berritzen da eta beraz, oso zaila izango litzateke pertsona bat sartzea, ez dena familiako edo larrialdi zerbitzuetakoa.

4. Abantailak

Abantailak erreparatuta irteera azkarra eta segurua ahalbidetzen du larrialdietan eta larrialdi zerbitzuen erantzun azkarra, komunikazio zuzena baitago. Bestalde, pertsonen atxikipena saihesten du, segurtasun-araudi guztiak betez.

5. Desabantailak:

- Mantentze-kostua: Sistema elektronikoa eta mekanikoa mantentze-lanak behar ditu, eta horrek gastu gehigarria dakar.
- Akats teknikoak: Hutsegite elektroniko edo mekanikoek atea ez irekitzea edo atxikitzea eragin dezakete larrialdi-unean.
- Faltsuak abisatuak: Botoia kasualitatez edo ustekabez sakatzeak larrialdi-zerbitzuak deitzea eragin dezake, ez beharrezkoak diren erantzunak sortuz.
- Segurtasun-mehatxuak: Ate automatikoak gehiegi manipulatu edo indarrez ireki daitezke, baimenik gabe sartzeko arriskua sortuz.

6. Aplikazio praktikoak

Produktu hau desgaitasunen bat duten pertsonentzat da, eta desgaitasunak badituzte eta atea ireki ezin badute, osasun-langileek sistema honekin azkar ireki dezakete.

7. Gizarte- eta ingurumen-inpaktua

Sistema berritzaile honek gizartean eta ingurumenean hainbat inpaktu ditu. Alde batetik, giza bizitzak ebakuazio azkarragoen eta seguruagoen bidez salbatzea. Aldi berean, lan-istripuak eta istripu zibilak murriztuz. Bestetik, azpiegitura publiko eta pribatuekiko konfidantza hobetzea ekarriko luke. Azkenik, energetikoki oso jasangarria da, bateria kargagarriak eta inpaktu txikiko materialak baliatzen baititugu.